


## AGUR ETA OHORE



Egibar, Arzalluzekin bere azken urtebetetzearen ospakizunearan, jaan den abuztuaren 24an.

## EUSKADIK MEREZITAKO GIDARIA

**X**abier Arzalluzekin bizi izandako makina bar une datozkit gogora. Funtserkoen artean lehena, beti euskaraz hitz egiten genuela elkarrekin. Gaztetan, ezagutu nuenean, oroitzun naiz ze garrantzia ematen zion euskara indartzeari euskal autogobernua berreskuratzeko orduan. Euskadiren izatea euskararekin lotua ikusi zuen hasieratik, euskaldun izatea euskararen biziberritzean jokatzen zela. Gure herriko hizkuntza defenditu eta euskal arimari hats eman dion tradizio jeltzale jatorrenarekin bat egin zuen apustu hartan: euskara bai eta bai. Eta as-

**JOSEBA EGIBAR  
ARTOLA  
EAJ-PNVREN  
GBBKO  
PRESIDENTEA**



matu egin zuen.

Bete betean asmatu zuen Eusko Alderdi Jeltzalea herri honetako politika demokratikoaren gidaritzan jartzean ere, ar-

men menpe jarri gabe. Pistolak eta bonbak ez ziren gure aberria askatzeko, ez Ajuriagerra eta urreko buruzagi jeltzaleen herentzia, ez Francoren ondorengo une historikoan eta Europako testuingunuan egin beharrek aukera, inola ere. Sen oneko kultura eta inteligentzia politikoa-ren jabe zen eta, arazoak arazo, garbi ikusten zuen elkarriketari ez zitzaiola inoiz atea itxi behar. Ez Estatuarekin ez Ezkerretzalearekin ez inorekin. ETArekin amaiera ezinbestekoa zela pentsatzen zuen Euskadiri indarkeriaren katea kentzeko. Hala, gogoratzen naiz, Estatuko

gobernuko ordezkariarekin egon ginen batean nola esan genien EBBk bere esku zegoena egingo zuela irtenbide elkarriketatua bilatzeko. Eta ETAn argi hitz egin geniola beti: negoziazioetan, pistolak kanpora. Ezin zituen eraman armadunen harrokeria eta itsukeria hura; indarrak eta okasioak alferrik galtzeko bidea besterik ez zitzaion iruditzen.

Erdiz erdi asmatu zuen euskal autogobernuari tresna finantzari-ekonomikoa ematean ere. Gure diruak, geuk bildu eta geuk erabili. Guk, geure Ogasuna, esan ohi zuen, eta ea zein erortzen zaigun zergak jaso eta diru

hura kentzera! Ez zen Madrilez fio. Inoiz ere ez. Azken aldirian Kataluniari adi bizi zen, jakinik Madrilen 'botak' ez duela erreparorik herrien askatasuna zaltzeko. Estatuaren 'botak' eta brunete mediatikoak zenbat eta presio gehiago orduan eta iparra irmoago, ez zen kikiltzen ez norabidez nahasten. Bere aukera eta interes politikoa Euskadin hasten zen eta Euskadin amaitzen, eta Euskadiren kausarekin senide diren herrien alde egiteko ez zuen zalantza egiten. Gure herria indartzean zegoen gakoak Arzalluzentzat, euskalduna prest egoteko gure Herriak jauzi politikoa egin behar duenerako. Bazekien jarduera politikoa mugekin jokatzen, azken helburuak eta nortasun ideologikoa saldu gabe.

Bazekien zatiketa kalterako dugula. Konbentzitu eta esaten zigun abertzaleen artean ados jarri behar genuela erabakitzeko eskubideari bidea emateko. Burua hotz zuela esaten zigun hori baina ondo dakigu bihotza berotzen ziola abertzaleon elkar hartzeak. Eusko Alderdi Jeltzalea Euskadi Estatu independente izatera bultzatzeko bitartekoa zela esaten zigun mitinetan, ahotsan sugarra eta indarra. Eta hori ez ahazteko.

Ez dugu ahaztuko, ez. Hartuko dugu, Xabier, zuk utzitako testigua, Euskadi bere buruaren jabe egiteko, euskaldunon erabakiari bidea zabalteko. Zuk egingadako ekarria neurtuz diot, gutako askok aho batez diogu: merezi du euskaldun izatea, merezi du abertzale izatea, merezi du jeltzale izatea.

Begoña, besarkada estu bat, eta Asier, Usoa, Miren, saminean lagun.

Agur, Xabier, gidari eta lagun mina, agur Egun Handira arte, bertierako Aberri Askean elkartu arte.

Gora Euskadi askaruta!